

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea Zalduondoko Udalaren lokal batzuek "Zalduondoko Alondegia" enpresa zentro gisa nola funtzionatuko duten arautzen duen udal ordenantza

Ez da erreklamaziorik aurkeztu Zalduondoko Udalaren lokal batzuek "Zalduondoko Alondegia" enpresa zentro gisa nola funtzionatuko duten arautzen duen udal ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka jendaurrean egon den arauzko epealdian; horrenbestez, ordenantza behin betiko onartzen da eta testu osoa argitaratzen da, 41/1986 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan ezartzen duena eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan ezartzen duena betetzeko.

ZIOEN AZALPENA

Zalduondoko Udalak bi lokal dauzka alondegiairean eraikinean; lokalok "Arabako Lautadako Kuadrillaren eskualdeko zerbitzu enpresen haztegia" deritzonaren barruan erabiltzeko atondu dira.

Eskualdeko enpresa haztegia berebiziko tresna da, Arabako Lautadako Kuadrillak helburu orokor honetarako darabilena: eskualdeko garapen ekonomikoa bultzatzea eta sustatzea, batez ere enpresa berriak sortzen eta sendotzen laguntzeko.

Eskualdeko zerbitzu enpresen haztegiak honako helburu hauek dauzka, besteak beste:

– Enpresa sortu berriei hastapenetako arriskualdia gainditzeko laguntzea, tokiko ekonomian behin betiko ezar daitezkeen.

– Enpresa sortu nahi dutenei jarduera kudeatzen laguntzea, hainbat arlotan.

Eskualdeko enpresa haztegia Arabako Lautadako Kuadrillaren eta bertako udalen arteko lankidetzak hitzarmenaren bidez ezartzen denaren arabera kudeatuko da.

Hitzarmenaren xedea da ezartzea nola kudeatu behar den eskualdeko zerbitzu enpresen haztegia; haztegiaren helburua da eskualdean ekimenak abian jartzea nor bere lanpostua sortzeko, horrela eskualdeko ekonomia indarberrituko baita.

Horrenbestez, Arabako Lautadako Kuadrillak bere gain hartzen ditu eskualdeko enpresa haztegia kudeatzeko egin beharrekoak: haztegiko lokalak adjudikatzeko eta erabiltzeko prozedura arautzen duten oinarriak, deialdia, proiektuak aztertzea eta hautatzea, itxaron zerrenda kudeatzea, eskaera berriak, eta abar.

Haztegiko lokalen titular diren udalek honako hauek egin behar dituzte:

1. Lokalak eskualdeko zerbitzu enpresen haztegirako soilik erabili hitzarmen hau indarrean dagoen aldian.

2. Errentamendu kontratua sinatu ekimen proiektua aurkezten duten pertsonen eta enpresen artean Arabako Lautadako Kuadrillak hautatzen dituenekin.

Hori guztia oinarritzat hartuta, Zalduondoko Udalaren egitekoa da ordenantza baten bidez arautzea nola erabili behar diren eskualdeko enpresa haztegiko bi lokalak, alondegiairean eraikinean daudenak. Ordenantza horrek lokalak nola erabili behar diren eta haietan nola jardun behar den finkatzen du.

1. artikulua. ZERBITZU OROKORRAK

“Zalduondoko Alondegia” enpresa haztegia bi bulego daude; 12m² bana dituzte.

Haztegiak honako zerbitzu orokor hauek edukiko ditu:

- Telefono konexioa.
- Interneteko konexioa.
- Eraikinaren mantentze integrala.
- Hornidurak: ura, argia, berokuntza.

2. artikulua. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Pertsona eta enpresa interesdunak hautatzeko Arabako Lautadako Kuadrillaren eskualdeko zerbitzu enpresen haztegi lokalak okupatzeko proiektuak hautatzeko irizpideak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako prozedura aplikatuko da.

Pertsonak edo enpresak hautatutakoan, “Zalduondoko Alondegia” enpresa zentroko lokala beren esku jartzeko/adjudikatzeko eskaera aurkeztuko dute Zalduondoko udaletxean eskura daitekeen inprimakian.

Eskaerak Alkatzaren dekretuz ebatziko dira.

Lokala okupatu aurretik onuradunak agiri bat sinatuko du hura erabiltzeko baldintzak betetzen dituela adierazteko, eta 100 euroko fidantza aurkeztuko du; egonaldia amaitutakoan, fidantza itzuliko zaio, bidezkoa bada.

Halaber, lokala okupatu aurretik aseguru konpainia batek egindako ziurtagiria, lokalak erantzukizun zibileko aseguru poliza daukala adierazten duena, aurkeztu behar du.

3. artikulua. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Beren izenean edo beste baten ahaldun moduan proposamena aurkezten duten pertsonen nortasun agiri nazionalen fotokopiak eta enpresaren IFK, eskaera aurkeztean eraturako enpresa izanez gero.

2. Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa eta aldaketa eskritura, baldin eta merkataritza legeria aplikagarriaren arabera beharrezkoa bada. Beharrezkoa ez bada, jarduteko gaitasuna entitatearen jardunari buruzko arauak jasotzen diren eraketa edo aldaketa eskritura edo agiria, estatutuak edo sortze akta aurkeztu behar da (behar den kasuetan, Erregistro Zibilean inskribatuta egon behar dira).

3. Enpresak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eta Arabako Foru Aldundiarekikoak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.

4. Alokairuaren ordainagiriak eta gastu komunak kobratzeko erabiliko den bankuko kontuaren berri ematen duen agiria.

5. Enpresa eraturik badago, Arabako Lautadako Kuadrillako udalerrietako batean jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoelako adierazten duen agiria.

6. Pertsona edo enpresa onuradunen zinpeko adierazpena, ziurtatzen duena ez daudela Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoak, ezartzen dituen kasuetan.

7. Aseguru konpainia batek egindako ziurtagiria, pertsonak erantzukizun zibileko aseguru poliza daukala adierazten duena.

4. artikulua. TARIFA

12 m²-ko lokal bakoitzaren erabilera: 20 euro hilean.

5. artikulua. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Onuradun bakoitzak zentroan dagoen aldian Zalduondoko Udalarekiko harremanetarako arduraduna izango den pertsona izendatu behar du.

2. Onuradunek beren gain hartu behar dute lokalak eta zerbitzuak ondo erabiltzeko ardura.

3. Jarduera esleitutako lokalean egin behar dute, eta lokala ondo atonduta mantendu behar dute. Pertsona onuradunek eskaeran adierazitako zerbitzu jarduera ekonomikorako erabili behar dute lokala. Beraz, bertan egin behar dituzte zerbitzu jarduerak, jarraian eta etengabe.

4. Onuradunek lokalean instalatuko den ibilgetuen eta ezarriko dituzten azpiegituren zereenda eman beharko diote Zalduondoko Udalari.

5. Higiezinako hornidurak, denak edo batzuk bakarrik, hornidura enpresekin kontratatu ahal izango dituzte; errentatzaileak ez du ezer ordaindu beharko. Banakako zerbitzuen gastuak, kontagailuen bidez zenbatzen direnak (argia, ura, telefonoa, gasa) onuradunek ordaindu behar dituzte osorik; halaber, haien kontura izango dira kontagailuak erosteko, artatzeko eta ordezteko gastuak ere. Gainera, onuradunek beren kontura ordaindu beharko dituzte errentatutako lokaleko zerbitzu eta horniduretarako egiten diren instalazioek pertsoneri eta gauzei egiten dizkieten kalteak; jabeak ez du edukiko inolako erantzukizunik kalte horientatik.

6. Zalduondoko Udalak ez du edukiko erantzukizunik enpresa zentroa erabiltzen dutenek bertan uzten dituzten gauzek jasaten dituzten kalteengatik, ez eta horiek lapurtzeagatik ere.

7. Hasieran adjudikatu ez diren azpiegiturak jartzeko eta erabiltzeko kontraturen bat aldatzeko ezinbestekoa izango da zerbitzuaren arduradunaren baimena.

8. Mailegatzen den materiala egoera onean itzuli beharko da erabili ondoren. Zerbait narriatzen bada, ordaindu egin beharko da edo berria erosi.

9. Onuradunek jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak eduki behar dituzte, eta sektorean aplikatzen den araudia bete behar dute.

10. Lokalak garbi eduki behar dira; garbiketa pertsona onuradunen ardura da.

11. Jarduerak berak eragiten dituen gastu guztiak (artapena, konponketak eta ordezipenak) eta instalazioak gaizki erabiltzearen ondoriozkoak pertsona onuradunen kontura izango dira. Horiek egiteko, onuradunek baimena eskatu behar diote idatziz Udalari. Gainera, lokalean gertatzen diren kalte guztien erantzukizuna ere edukiko dute.

12. Pertsona onuradunek ezin izango dute egin lokala eraberritzeko obrarik Udalak beraiazko baimenik eman ezean.

13. Zalduondoko Udalak beretzat gordetzen du eskubidea lokala noiznahi bisitatzeko (berak zuzenean edo ordezkaria izendatuta), bidezkoa edo beharrezkoa deritzon kontratuan ezarritakoa betetzen den eta obrarik egin behar den egiaztatzeko edo beste edozein arrazoiengatik. Horren ildotik, lokalean obrarik egin behar izanez gero, erabiltzaileek lokalean sartzen utzi beharko diete haiek egin behar dituzten teknikariei eta langileei.

14. Lokalak eta zerbitzuak oker erabiliz gero edo ordenantza honetan ezarritakoa bete ezean, kontratua suntsituko da eta onuradunak ezin izango du eskatu berriz ekintzaileentzako lokalik.

15. Pertsona onuradunek ezin izango dute errentatu, laga ez kargatu esleitutako haztegiko lokala, ez osorik, ez zati bat. Debeku hau hausteak kontratuaren erabateko suntsiarazpena ekarriko du.

16. Eskualdeko zerbitzu enpresen haztegiko lokalaren kontratuak bi urte iraungo du gehienez sinatzen denetik.

XEDAPEN GEHIGARRIA – INDARREAN JARTZEA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, ordenantza hau ez da jarriko indarrean harik eta testu osoa ALHAOn argitaratu eta lege horrek berak 65.2 artikuluan ezartzen duen epealdia amaitu arte.

Zalduondo, 2018ko urriaren 22a

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE